

## IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G. 22

Aralar



**Aralarko mendigunea Euskal Herriko** mendi-eremu adierazgarrietariko bat da, dituen zabalera, balio natural eta berezitasun handiko paisaiengatik; gainera, Euskadiko artzain-eremu garrantzitsua da.

Aralarko paisaia zelaia eta mendiko harkaitzak nagusitzen dira gune altuetan. Beherago, basoak zabaltzen dira, besteak beste, Lizarrustiko pagadi bikaina edo Ataungo domoa estaltzen duen artadi kantauriarra. Mendiko in-

guruneen aniztasun horrek barnean hartzen ditu aparteko aberastasuna duten Atlantikoko mendietako berezko flora eta fauna, espezie garrantzitsu ugariekin.

Bertako naturak eskaintzen digun guztiaz gain, Aralar leku mitikoa da euskal kulturari; izan ere, Euskal Herriko tradizioan funtsezkoak diren errito eta kondaira anitzen sorlekua da. Horieta asko Ataunen jaiotako Jose Migel Barandiaran esker iritsi zaizkigu, hark bildu eta zabaldu baitzituen.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (1994) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

### LANERAKO GAIAK

- Aralarko klima. Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa, pantaila klimatikoa.
- Forma eta fenomeno karstikoak: erliebe nagusiak.
- Aralarko ura, ibaien ur-lasterrek, iturburuak, lurpeko urak, Lareoko urmaela, uraren erabilerak eta kontsumo arduratsua.
- Ataungo domoa: artadi kantauriarra, basoek lurzorua mantentzeko betetzen duten funtzioa.
- Baso naturalak: Lizarrusti, pagadiaren nagusitasuna.
- Gizakiaren aztarna Aralarren: monumentu megalitikoak.
- Artzaintza Aralarren: artzain-kultura, modelatutako paisaia.
- Lurzoruaren higadura-prozesuak, gehiegizko abeltzaintzak areagotu dituenak, pistak, jende askok erabiltzen dituen bide aldapatsuak.
- Aralarko bideak: galtzadak, Lizarrustiko basoko trenbidea.
- Mendilerroko bizimodua: egurgileak, ikazkinak eta artzainak, transhumantzia, bordak.
- Etnografia. Jose Migel Barandiaran, bizitza eta obra.
- Landa-ondarea. Ataun: baselizak, dorre-etxeak, errotak, karegileak.
- Gastronomia: Idiazabal gazta, mondejuak, mamia, zizak, taloak.
- Kondairak, festak eta erromeriak: Jentilen itzulera. Mariren kobazuloa, Jentilbaratza, San Martin Txiki, etab.